

ONDARROA

Nafarroa ondo ezagutzeko aukerea izango dabe herritarrek

Zenbat Gara alkarteak Nafarroa hurragotik ezagutzeko aukerea eskainiko deutse herritarrei. Nafar Astearen antolatzaileek euskaldunek alkar ezagutzea gura dabe. Argi ei daukie zer nahi daben: «Euskal Herriko beste hainbat talde zein pertsonagaz hartu-emonetan gagoz helburu argi bategaz: euskaldunok alkar ezagutzea eta gure hartu-emonak sendotzea, hainbat eta hainbat ekitaldi alkarregaz egiteko», adierazo dabe.

DIMA

Hurtzaindegia egokituko dabe udabarrirako Ugarana eskolan

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailagaz sinatutako itunaren arabera, Diman herri hurtzaindegia izango dabe udabarrirako. Ugarana eskolan ipiniko dabe oraingoz, eta ikasturte honi begira gela bat egokituko dabe hurtzaindegia jarteko. Martian gertu egongo dalakoan dagoz udal arduradunak. Halandabe, 2003-2004 ikasturterako, udal liburutegiko azpikaldeko lokala atondu eta hor egongo da behin betiko herriko hurtzaindegia.

BILBO

Itzotz Jauregia egiteko asmoa dauka Kirola Saileko zinegotziak

Itzotz Jauregia eregi gura dau Jose Manuel Uribarri Kirola eta Gazteria Saileko zinegotziak Bilboko San Inazio auzoan. Egingo daben ez dago argi, azken berbea Udalak daukalako, eta erabagia hartu barik dagoelako oraingoz. Izan be, aurrekontua 10.200.000 eurokoa da, arkitektuaren soldatea kontuan hartu barik.

INGURUMENA. Garbiguneak

la 29.000 tona hondakin batu zituen igaz, 2001ean baino % 34,5 gehiago

Garbiguneen ganeko datuen barri emon eben atzo Aldundiko Ingurumen Saileko arduradunek, eta balantzea «ezin hobea» dala nabarmendu eben

Bizkaiko garbiguneen (Bilboko-ak izan ezik) igazko datuen barri emon eben atzo Aldundiko Ingurumen Saileko arduradunek: Maria Esther Solabarrieta Ingurumen diputauak, Mari Carmen Urbietta Ingurumen Saileko zuzendariak eta Iñaki San Juan Garbiker enpresako zuzendariak. Igazko balantzea «ezin hobea» dala azpimarratu eban So-

labarrietak. «Joan dan urteekin alderatuta, geure errekorra gainditu dogu», azpimarratu eban. Izan be, 28.843 tona hondakin batu zituen igaz garbiguneetan, hau da, 2001ean baino % 34,5 gehiago, orain dala urte bi 21.439 tona hondakin batu zituen eta. Aurreragoko urteekin konparau ezker, handiagoa da datuen arteko aldea.

Gaur egun, 19 garbigune dagoz, eta lehenengo zabaldu ebenetik —1997ko apirilean, Basaurin— hona, 80.411 tona hondakin batu dabe guztira. «Datu garrantzitsua da hori, pozgarria; izan be, garbigunerik egongo ez balitz, nora bota hondakinak? Kontrolau bako zabortege gehiago egongo litzaitez», azaldu eban diputauak.

Santurtziko garbigunean batu eben hondakin gehien: 5.346 tona. Eta gero, kantidadearen arabera, Basaurin, Getxon, Barakaldon, Erandion, Derion, Sestaon, Mungian eta Durangon. Hondakin gitxien, ostera, Karrantzakoan jaso eben: 118 tona. Dana dala, normala da, ibar horretan ez da-eta jente asko bizi.

URDAIBAI. Artea



Ezkutuko arte erakustokia

Edu Gordo artistek nabarmentzekoak diran hainbat behar egin da daukaz. Baserritarren omenez eginiko *Astelehenen Jai* edo Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena zala-eta egin eban *Hilarria* eskultureak izan leitekez ezagunenak, baina ez bakarrak, eta, ausaz, ez ikusgarrienak. Izan be, gizonari Historiaurreko kontuen ganeko jakin-min handia ezagutzen jako, eta adituek goan daukie zaletasun horrek bultzatuta Paleolitiko sasoiko hor-

ma artearen ganeko tesinea idatzi ebala aspaldi, 1981ean. Obra ikusgarriak aitatu doguz, ikusgarriak diralako nahiz eta iluntasunean gordeten diran beharrak izan. Mendizalea eta espelologoak dan ezker, kobazuloak hartzen dauz bere arte-lan batzuen erakusleku bikaintzat. Ondo daki berak horren leku bitxia aukeratu, ikusle gitxi izango dituana bere lanak, baina berarentzat «lekua da inportanteena».